

Maritxu amona

- Kukurruku!
- Zer duzu?
- Buruan min.
- Zeinek egin?
- Axarkok.
- Axarko non?
- Mendian.
- Zertan?
- Txotak biltzen.
- Txotxak zertarako?
- Sua egiteko.
- Sua zertarako?
- Amona berotzeko.
- Amona zertarako?
- Zu, txiki polit hori, goxatzeko.

Halaxe goxatzen zuen Maritxu amonak besoetan zuen jaioberria gainontzekoak txotxak biltzen zebiltzan bitartean..

Negua izanik sukaldea hotz zegoen eta gainera bilobei asko gustatzen zitzaien basoan ibiltzea.

Kaletarrak ziren eta baserrira joaten zirenean hango bizimoduarekin gozatzen zuten.

Maritxu amona maitagarria zen. Hamaika lan egindako emakume baserritarra. Gazte gaztetatik ohituta zegoen horretan. Esku zailduak zituen. Auskalo zenbat arropa garbitu ote zuen erreka ur hotzetan eta zenbat arto aletu ere. Hala eta guztiz ere bilobentzat esku goxoak zituen. Oso goxoak. Udaberria etortzen zenean atarian jartzen ziren. Batzuk tresneria konpontzen, beste batzuk barazetik etorri eta atsedean txiki bat hartzen eta bitartean elkarrekin kontu kontari aritzen ziren. Ez zen nola nahiko ataria gainera, harlauza ederrak zituen.

Baina ez zen beti hala izan. Baserrira bera ataria baino zaharragoa zen. Ondo gogoratzen zuen Maritxuk bere ama zenak, Onkak, nola kontatu zion behin atari horren jatorria.

Oneka gaztea zen artean eta indartsua zenez bere betebeharra beheko iturrira ur bila joatea izaten zen. Garai hartan oraindik ez zuten etxean urik.

Ez zuen batere gustukoa lan hori. Bidea estua, ilun xamarra eta lokaztua egoten zen eta ahal zuen bizkorren egiten zuen joan etorria. Ez zen batere xamurra ordea marmidak urez beteta bizkor ibiltzea. Kirioak dantzan izaten zituen aldiro.

Haietako egun batean marmidak urez beteta zetorrela hura ezustekoa izan zuena. Ez zitzaion bada Jentil bat agertu!

Halakorik! Zurbil zurbil eta ia ia zorabiatu egin zen.

Jentila ordea erotuta zegoela zirudien. Haren dantzak eta irrintziak. Buelbaka, saltoka, garrasika...

Arantza bat sartuta zuen nonbait ezkerreko oineko hatz lodian eta eginahalak eginda ere ezin zuen atera, eskuak izugarri handiak zituen eta.

Ikaragarritzko minak zituen. Behatza gaiztotzen ari zitzaion.

Oneka kupitu eta berak atera zion arantza. Hau bakea hartu zuena jentilak. Bere onera etorri zenean eskertu nahi izan zion nolabait eta bi marmidak esku bakarrarekin hartu eta ia ia baserriraino eraman zizkion batere nekatu gabe.

Onkak ere ederki eskertu zuen. Bi marmita haiek ederki pisatzen zuten, bai horixe!

Geroztik Oneka beldurrik gabe joaten zen ur bila. Gainera, bazekien pixka bat itxoin ezkerreko jentila agertuko zitzaiola eta marmitekin lagunduko zuela.

Uste gabeko lagunak egin ziren.

Dena dela jentilak ez zion inoiz atariraino lagundu, ez zen eta gainontzeko pertsonekin fidatzen. Jentila, pago baten atzean gordeta geratzen zen Oneka baserrira sartu arte. Handik ikusten zuen oinetako lokaztuak nola kentzen zituen etxera sartu aurretik.

Jentilak gau batean, isil isilik inor esnatu gabe, baserriko atarian harlauza handi batzuk jarri zituen. Hurrengo goizean denak ahoa bete hortz geratu ziren eta Onekak irribarre isil bat egin zuen. Handik aurrera jakina, etekin ederra atera zioten atariari.

Urte gutxi batzuk joan ziren eta beste batzuk etorri ere etorri ziren eta udaberriko egun batean gertatu zen gertatu beharrekoa.

Abereek kumeak erditzen zituzten garaia zen hura. Galtzak bete lan zeukaten.

Azeria ere urruti ez eta oilategian oilo bat baino gehiago akabatuta aurkitzen zuten. Gaztak jaten ere aritzen zen eta gero haiek ezin saldu azokan.

Nazkatuta zeuden eta zepoz bete zuten baserri ingurua.

-Gaur harrapatuko dugu bai- esan zuen Anttonek, Onekaren anai batek. Oso iaioa zen horretan.

Ilunabar hartan Antton eta beste bi anai arreba zepoetan ea azeririk erori ote zen begiratzera joan eta zer harrapatuko ganbarako zepoan? Azeria ez, Pello izeneko gizon gazte bat.

Gozoak jarri ziren.

Zer egin behar zuten lapur lotsagabe harekin?

-Eskua moztu behar diogu- esan zuten Antton eta anai arbek.

-Ez, ez. Hori gehiegizkoa da- Erantzun gurasoek- urte betean muxu truk lan egin beharko du guretzat.

Onekak Pello ikusi zuenean zera esan zuen:

- Baina ez al duzue ikusten kanabera baino iharragoa dagoela gizajoa. Aspaldian honek ez du ezer jan.

Pello gazteak halakoxe itxura zuen bai. Denak begira geratu zitzaizkion eta sukaldera eraman zuten.

Porrusalda eman zioten eta segituan lo geratu zen. Esnatu zenerako hurrengo eguna zen eta bertan eduki zuten indartu arte.

Halako batean jaiki eta lanean hasi zen. Langile fina zen. Lurra goldatzen, segan, ala egur ikatza basotik eramaten laguntzen zuen eta a zer nolako bideak zituzten gurdiari tiraka aritzeko, dena lokaztua.

Pello etxean apopilo hartu zuten.

Gerora bideak egiten hasi zirenean ere auzolanean laguntzen zuen.

Bide haiei esker gurdiak baserrietatik hirietara hobeto eraman ahal izan ziren eta hirietatik etxerako bidea ere errazagoa izan zen.

Kotxe zahar bat ere erosi zuten eta azokarako joan etorriak egiteko edo medikuarengana inor eramateko ederki etorri zitzaien.

Urteak pasa ziren.

Oneka eta Pello elkarrekin bizitzen jarri ziren baserrian bertan. Haur bat izan zuten, gure Maritxu eta ez zuten aspertzeko denborarik izan seme alaba gehiago izan bai zituzten eta baserriko lan guztiarekin konturatzerako haurrak koxkortu zitzaizkien eta eskolara bidali zituzten.

Maritxu eta anai arbek hiriko bizimodua ezagutu zuten eta hiritarrak baserrietarrak baino erosoago bizi zirela ikusi zutenean ahaleginak eta bi egin zituzten beraiek ere horrela bizi ahal izateko.

-Guk ere ura sukaldean eduki nahi dugu-Esan zuten Maritxuk eta anai arbek.

-Ez da xamurra izango-Jarraitu zuen aitak.-Ubide luze luze bat osatu beharko dugu herritik baserriraino.

Eta auzokoen artean egin zuten.

-Argia ere behar dugu-Jarraitu zuten eskatzen etxeko gazteek.

Gerxeago argi indarraren kableak ere bertaraino eraman zizkieten.

Bizimodua errazten ari zitzaien heinean paisaia aldatzen ari zen eta Oneka eta Pellok ez zuten oso polita ikusten hori. Maritxuk ordea gustura hartu zituen aldaketa horiek, lehenaz gain, baserrian lana gogorra izaten bai zen, batez ere udan.

Bai, udan izaten ziren egun gogorak. Lana berdin berdin egin behar izaten zuten nahiz eta bero sargori izan. Haietako goiz batean denak belar sail handia mozten ari zirela Maritxuk hamaiketakoak ekarri zien eta gereziondo azpian jarri ziren jendearen joan etorriei begira.

- Aizue, lehen biderik ere ez zegoenean kaletarrik ez zen ikusten hemen inguruan.-Esan zuen Onetakak.

-Halaxe da bai-Jarraitu zuen Pellok- Lehen mendian ganadua eta basomutilak besterik ez ziren ikusten. Orain kaletarrak mendira hurbildu dira.

Orduantxe kaletar haietako bat, Peru izenekoa, gerturatu zitzaaien egarrituta.

-Egun on. Ba al duzue urik?

-Bai, tori-Erantzun zion Maritxuk pitarra eskainiz.

Peru lur jota zegoen eta gerezi ondo azpi hartan geratu zen eta loak hartu zuen. Gero, Maritxu eta besteak belarretara joan ziren.

Handik pixka batera Peru garrasika hasi zen:

-Sugea! Sugea!

Korrika batean joan ziren laguntzera. Suge gorria zen! Ene!

Pellok sardearekin urrutira bidali zuen eta Peru bizkor bizkor baserrira eraman zuten.

Zorionez ez zion sugeak heldu baina halako sustoa hartu zuten denek lasaitu arte bertan geratu behar izan zutela. Gero norbera bere zereginetara itzuli zen.

Handik aurrera Peru egunero joaten zitzaaien bisitatzera, batez ere Maritxurengana.

Maritxu ere gustura zegoen Perurekin.

Uda halaxe igaro zen eta udazkenean arto aletzen eta Peruren bisitak jasotzen pasa zuten.

Hilabeteak pasa ziren eta urtero bezalaxe negua heldu ordurako Pello kantari hasi zen:

-San Simon eta San Juda, joan zen uda eta negua heldu da...

Neguko egun motzak eta hotzak etorri ziren baina Maritxuri konpainia onarekin inoiz baino azkarrago pasa zitzaion.

Maritxu eta Peru ere elkarrekin baserrian bizitzen jarri ziren.

Familia handitzen ari zen.

Kide batzuk joan eta beste batzuk etorri eta konturatzerako urteak pasa ziren. Asko. Halaxe amondu zitzaigun Maritxu eta biloben bisitak pozarren jasotzen zituen, neguko goiz hartan bezalaxe:

-Mok, mok, mok!!!-Bazetozen beti bezala kotxeko bozina joaz eta zalaparta batean-Hemen gara amona!

Bai, bai. Hantxe etorri zitzaizkion bilobak aste burua pasatzera. Maritxuk berehala bidali zituen basora surtarako txotxak biltzera.

Jentil zaharra ere zain zegoen haur hauek noiz etorriko. Bazekien bai Onekaren ondorengoak zirela eta txotxa mordoxka bat pilatuta uzten zien basoko iturriaren ondoan. Haurrak pozak txoratzen itzultzen ziren amonarengana esanaz:

-Amona, amona, gaur ere txotxa mordoxka hau aurkitu dugu.

Maritxuk orduan leihotik begiraten zuen eta zuhaitz artetik itzal bat mugitzen ikusten zuen.

KIKILI